

BEASAIN ▶ GIZARTEA



AHT gelditzeko eskatu du kalejira batekin Elkarlanak

Erredakzioa ▶ Abiadura Handiko Trenaren kontrako ekimena egin zuten atzo Beasaingo festen barruan, AHT Gelditu Elkarlanak deituta. Kalejira koloretsua egin zuten. Besteak beste, Mantala No-ren emanaldia izan zen. Kalejiran parte hartu zutenek «desarrollismoa» salatu zuten. M. DEL OLMO

ORDIZIA ▶ INGURUMENA

Oiangu natur espazio babestua izendatzea aldarrikatu dute

Proiektuak parkeko biodibertsitatearen inpaktu larria eragingo duela salatu dute Oiangu Egunean hainbat herritarrek



Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformako kideek prentsaurrekoa eman zuten atzo. OIANGU BIZIRIK

ERREDAKZIOA

Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak antolatuta, atzo Oiangu Eguna ospatu zuten. Helburua parkeko proiektua gelditzeko eskatzea zen (paintball-a, golf zelaia...). Oiangu natur espazio babestua izendatzea aldarrikatu du plataformak.

Goizeko 10:00etan abiatu ziren parkerantz atzo. Goian tximeleten inguruko aditu baten hitzaldia entzun eta ondoren hamaiketako egin zuten. Guz-tira, 60 lagun inguru bildu ziren, iaz baino jende gehiago. Antolatzaileak gustura agertu ziren herritarren erantzunarekin. Gazte Asanbladakoek ere parte hartu zuten; umeentzako jokoak prestatu zituzten. Egurraldiak ere lagundu zuten,

MANIFESTAZIOA ▶

- Gaia.** Manifestazioa
- Eguna.** Ekainak 9.
- Ordua.** 19:30.
- Herria.** Ordizia.
- Tokia.** Plaza.
- Leloa.** *Oiangu Publikoa eta Bizirik, Oiangu golfik ez, eta Oianguko pribatizazioari ez.*

eguzkia izan zuten goizean goizetik.

Eguerdian Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformako kideek prentsaurrekoa eman zuten. Agerraldian Oiangu natur espazio babestua izendatzea eskatu zuten. Prentsaurrekoa Udalak proiektuarekin aurrera jarraituko balu golf zelaia

eraikiko zen lekuan eman zuten. Egitasmoa gelditzeko eskatu zuten beste behin ere. Horretaz gain, herritarrekin hizketaldi prozesua irekitzeko ere eskatu dute.

Prentsaurrekoari euren atxikimendua agertu diote honako hauek: Ezker Batua eta Ordizia-rrak Gera talde politikoek, EHNE nekazaritza sindikatuak, Landarlan Natur Taldeak eta Goierriko AHT Gelditu Elkarlanak.

Bestalde, hilaren 9an, manifestazioa deitu dute; arratsaldetako zazpi eta erdietan abiatuko da Ordiziako plazatik. Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformak ekainaren 9an antolatutako manifestazioan parte hartzeko deia egin die herritarrei.

udaberriko eskaintza handia

PortAventura
188€

TermoEuropa Boinu-etxea
105€

Valentzia: artez betetako bisita
54,90€

Playa de las Americas
332€

Cantabria
48€

Marbella
65€

EROSKI bidaiak
merxei duzu

hitza Harpidedunen txokoa

HITZak, bere harpidedunen artean, GOIERRIKO BARATZAN erabiltzeko 50 €-ko 2 erosketa txartel zozkatuko ditu

ZORTE ON!!

Parte hartzeko deitu 943 160056.ra (17:00ak arte) idatzi gh@goierriko-hitza.info helbidera